



Oiartzunen feminismoa sustatzeko edo parekidetasunerako proiektuak gauzatzeko

DIRU-LAGUNTZA OINARRI ZEHATZAK

1. XEDEA eta LEGE ARAUDIA.

1.1 Oinarrien helburuak

Oinarri hauen xedea da emakume-elkarteei, elkarte misto eta herriko eragileei zuzendutako diru laguntzak arautzea norgehiagoka prozedura bidez, Oiartzunen ikuspegi feminista eta parekidetasuna bultzatzea helburu duten ekintzak laguntzeko. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzeko proiektuak edo ekintzak lagunduko dira, bereziki ondorengoak:

- Oiartzungo emakumeen elkartegintza eta parte hartzea sustatzeko herriko bizitza politiko, ekonomiko, sozial eta kulturaren esparru guztietan.
- Sentsibilizazio eta dibulgazio jarduerak egiteko, tratu eta aukera berdintasunaren inguruan, emakumeen eta LGTBI pertsonen eskubideen sustapen eta defentsa alorrean.
- Emakumeenganako indarkeria prebenitzeko eta desagerrarazteko, indarkeriari aurre egiten dioten emakumeen eskubideen defentsarako eta erreparazio sozial eta sinbolikorako.
- Kontzientzia feminista areagotzeko ekimenak.
- Parekidetasun balioetan eta jarreretan hezteko ekintzak eta gizarteko sexu-genero rolen eraldaketa bultzatzeko.

1.2. Aplikatu beharreko araudia

Diru laguntza hauen arau markoa kontuan izango da, beraz, pertsona edo elkarte onuradunak aplikatzekoa zaion indarreko araudi guztia errespetatu beharko du, bereziki ondorengoak; Oiartzungo Udalaren diru laguntzak arautzen dituen Ordenantza, 2018ko azaroaren 30eko GAO n argitaratua; eta bere aldaketa 2022ko irailaren 20an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua, 2022-2024rako Oiartzungo diru laguntzen Plan Estrategikoa; Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritakoa,; uztailaren 21eko 887/2006 Errege dekretua ; 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoa eta 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa.

2. AURREKONTUA.

Programa honen bidez deitutako diru-laguntzen zenbatekoa 5.000,00 eurokoa da, eta ondorengo diru atalaren kontura joango da: 1005.480.231.50.09 2022 DIRULAGUNTZAK: GENERO BERDINTASUNA

Done Eztebe plaza 1 – 20180 Oiartzun 943 490 142 – www.oiartzun.eus

3. HARTZAILEAK eta PARTE HARTZE BALDINTZAK.

Oiartzungo Ordenantza Orokorrean 2. Artikuluan zehazten duen moduan oinarri hauek arautzen dituzten diru-laguntzak honako hauek eskatu ahal izango dituzte: egoitza edo ordezkari iraunkorra Oiartzunen duten edo bere jarduerak iraunkorki bertan egiten dituzten pertsonak edo elkarteek eskuratu ahal izango dituzte diru laguntzak, bereziki emakume elkarte eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko helburua duten irabazi asmorik gabeko elkarteek.

Horiek guztiek diru-laguntzak eska ditzakete, nortasun juridikorik izan gabe ere, diru-laguntza hauek arautzen dituzten jarduerak aurrera emateko egoeran badaude, eta ondorengo baldintzak betetzen badituzte:

Eskatzailea elkarte bat bada, honakoa eskatuko zaio:

- Indarrean dagoen legeriaren arabera eratuta eta dagozkien erregistroetan inskribatuta egotea.
- Identifikazio Fiskaleko Kodea izatea.
- Egunean egotea zerga-betebeharretan.

Ezin izango dute dirulaguntzarik jaso, indarrean den araudiari jarraiki, eskubide hori mugatua edo ezabatua duten pertsonak edo erakundeak. Halaber, ezin izango dute diruz laguntzarik eskuratu behin betiko ebazpen bidez eskubide hori galtzera zigortutakoek ere, edo Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrak 13.2 Artikuluan adierazitako beste edozein kasutan daudenak.

Berdintasunerako eta sexuagatik diskriminatuta ez izateko eskubidea urratzeagatik administrazio-, lan- edo zigor arloko zehapenak jaso dituzten pertsona edo fisiko nahiz juridikoei.

Emakume edo gizonen arteko berdintasun printzipioaren aurkako helburuak, sarbide sistemak, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolaketa edo estatutuak dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoei.

Emakume eta gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean eta Emakume eta gizonen benetako berdintasunari buruzko martxoaren 30eko 3/2007 Lege organikoan ezarritako betekizunak betetzen ez dituzten pertsona fisiko zein juridikoei.

Erakundeak, lekukotza judizialen bidez edo ziurtagiri bidez egiaztatu dezake onuradun izateko debekuetan sartuta ez dagoela. Agiri horiek eskuratu ezin direnean, horien orde, erantzukizunpeko aitopena aurkez daiteke.

4. DIRU-LAGUNTZA JASO DEZAKETEN PROIEKTUAK

Deialdi honetako xede dira ondoren azaltzen diren proiektuak:

Diruz laguntzeko modukoak izango dira 2021eko urtarrilaren 1 eta abenduaren 31a bitartean egingo diren jarduerak, ondorengo jardueretarako badira:

- Esparru guztietan gizonen eta emakumeen artean berdintasun erreala eta eraginkorra sustatzen duten proiektuak.
- Emakumeen eta LGTBI pertsonen eskubideen inguruko sentsibilizazio, trebakuntza eta zabalkunde proiektuak.
- Emakumeen elkarte-sarea zein mugimendu feminista sendotzea.
- Emakumeen ahalduntze pertsonala, soziopolitiko eta ekonomikoa sustatzeko jarduerak.
- Emakumeen egoera soziopolitikoari buruzko eztabaida eta hausnarketa sustatzen duten proiektuak, sareak sortzen lagunduz eta emakumeen kudeaketa eta zuzendaritza-gaitasuna garatzeko jarduerak sustatuz, botere-eremuetan eta erabakiak hartzeko eremuetan parte-hartzea bermatzeko.
- Emakumeen historia eta pentsamendu feminista ikertzeko eta berreskuratzeko proiektuak, eta emakumeen erreferentziak eta genealogiak sortzea eta zabaltzea sustatzen dutenak.
- Ezaugarri bereziak dituzten emakumeen kolektiboen bizi baldintzak hobetzera bideratutako proiektuak.
- Emakume elkarten eta lankidetzak elkarten arteko elkarlana eta esperientzia trukaketa aintzat hartzen duten proiektuak, betiere generoaren ikuspegitik denentzako programak eta ekintzak garatzeko.
- Sexu-genero rol eta estereotipoen nahiz horiek esparru pribatu eta publikoan emakumeen zein gizonezkoen bizitzan duten eraginaz sentsibilizatzeko eta horiek eraldatzeko jarduerak.
- Emakumeen kontrako indarkeriaren inguruko informazio, sentsibilizazio, prebentzio eta erreparazio jarduerak.
- Berdintasunean gizonezkoen jarreraren eraldaketa bultzatzen duten ekintzak, maskulinitatearen deseraikitzeak.

5. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA ETA AURKEZTEKO LEKUA.

Eskaerak Udaleko Erregistro Nagusian aurkeztu behar dira Udalak horretarako jarriko dituen eskaera orrietan. Halaber, urriaren 1eko Administrazio Publikoaren Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikulua aipatzen dituen lekuetan ere aurkeztu ahal izango dira.

Dirulaguntzak eskuratzeko eskabideak deialdia egiten duen organoari zuzenduko zaizkio, eta onuradunak edo hori ordezkatzeko duen pertsonak sinatu beharko ditu; eta eskaerarekin batera, dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

- Eskaera orri orokorra bete eta sinatuta.
- Erakunde eskatzailearen, pertsona arduradunaren edo ordezkariaren nortasun-agiri nazionalaren zenbakia.
- Elkarte, erakunde edo interesatu eskatzailearen identifikazio fiskaleko zenbakia.

- Eskaera egiten duen elkarte, erakundeak edo interesatuak kontu korrante bat ireki duela egiaztatzen duen banketxearen edo aurrezki kutxaren ziurtagiria.
- Diruz lagundu nahi duen proiektuaren, jardueraren edo programaren txostena: helburuak, aurreikusten diren jarduerak, nori zuzenduta dagoen eta abar.
- Jardueren gastuen eta sarreraren aurrekontua.
- Laguntza lehen aldiz eskatzen dutenek, aurrekoek gain, Eusko Jaurlaritzaren Elkarte eta Entitateen Erregistroan izena emanda egotearen egiaztagiria kopia Eta Estatutuak.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Oiartzungo Udalak bitarteko elektronikoen bidez egingo ditu deialdi honetarako beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak, datu elkarreragingarri hauek lortzeko:

- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak egunean dituela. Egiaztapena ordeztu ahal izango da erantzukizun aitopenearekin Diru laguntzen udal ordenantzako 6.e. kasuetako batean baldin badago eskatzailea.
- Identitatea.
- Horiek guztiak, interesdunak eskabidean berariaz aurkakorik adierazi ezean; aurka azalduz gero, honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:
- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak egunean dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak.
- NANaren edo IFZaren fotokopia.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.3 artikulua arabera, Oiartzungo Udalak ezin baditu agiri horiek elektronikoki bildu, salbuespen gisa, eskatu ahal izango dio interesdunari horiek aurkezteko.

6. ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEAK.

Diru- laguntza eskaerak 10 egun balioduneko epean aurkeztu behar dira, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean deialdi hau argitaratzen denetik zenbatzen hasita, aurreko artikuluan deskribatutako agiriekin batera.

Eskaerak edo harekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioak akatsen bat baldin badu edo osatu gabe baldin badago, interesatuei hamar egun naturaleko epea emango zaie, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, hutsak konpon ditzaten. Epea amaitu eta akatsak konpondu ez badituzte, eskaera bertan behera utzizat dutela joko da, eta prozedura artxibatu egingo da.

7. BESTE DIRULAGUNTZEKIN BETARAGARRITASUNA

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste erakundeek xede bererako eman ditzaketen dirulaguntzekin, beti ere Oiartzungo dirulaguntzen ordenantzan 14. Artikuluan finkatutakoari jarraiki.

8. IZAPIDETZEAZ ARDURATZEN DEN SAILA.

Oiartzungo Udal Dirulaguntzen ordenantzak IV. Tituluan jasotakoari jarraiki Berdintasun teknikariak eskariak izapidetuko ditu eta Berdintasun Batzordeak ebaluatu, dagokien txostena egin eta instrukzio organoak behar bezala arrazoitutako behin behineko ebazpen proposamena egingo du, interesatuei hamar eguneko epea eskainiz alegazioak aurkezteko. Prozeduran interesdunek argudiatutako beste egintzarik, alegaziorik edo frogarik aurkezten ez denean, entzunaldi-izapide hori bazter utzi ahal izango da. Kasu horretan ebazpen proposamena behin betikoa izango da. Oiartzungo Udaleko Alkatea da prozedura hau ebazteko eskumena duen organoa.

9. DIRUZ LAGUNDU DAITEKEEN GEHIENEZKO ZENBATEKOA

Gutxienez 50 puntu lortzen ez dituzten eskaerak baztertu ondoren, puntuazio hori gainditzen dutenen artean, dirulaguntza horrela banatuko da: deialdi honetara bideratutako aurrekontu osoa zati proiektu edo diru-laguntza guztiei esleitutako puntuen baturak, puntu bakoitzaren balioa finkatuko du. Puntu bati dagokion balioak, proiektu bakoitza baloratzeko erabilitako puntuekin biderkatuta, diru-laguntzaren zenbatekoa zehaztuko du. Lortutako puntuen arabera kalkulaturako kopurua eskatutako diru-laguntza baino handiagoa bada, aldea kenduko da.

Proiektuaren kostuaren % 80 ordainduko da gehienez eta eskaera bakoitzak gehienez ere 2000 euroko diru-laguntza jasoko du.

10. ESKABIDEAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK.

Ondorengo irizpideen arabera:

IRIZPIDEAK	PUNTUAK
Proiektuaren kalitate teknikoa	30
Ikuspegi interseksionala kontuan hartzen duten egitasmoak: adina, arraza, inmigrazioa, sexu eta genero identitatea, aniztasun funtzionala, pobrezia eta edo gizarte bazterketa.	5
Proiektuak genero ikuspegia izatea	15
Hizkuntza irizpideak	5
Ingurugiro irizpideak	5
Emakume elkarte batek aurkeztutako proiektua izatea	5
Emakumeen jabeakuntza xedea izatea	5

Salaketa eta aldarrikapen ekintzak	5
Elkarteak erakutsitako ibilbidea, jarraikortasuna, egonkortasuna eta dedikazioa	5
Emakumeen eskubideak, historia eta pentsamendu feminista hedatzea helburu duten proiektuak, baita emakumeen erreferentzia eta genealogia sortzen dutenak.	5
Ikuspegi eta xede hezkidetzailerak duten jarduerak	5
Emakumeen kontrako indarkeria prebentzio eta erreparazio jarduerak	7
Berdintasunean gizonen parte hartzea sustatzen duten egitasmoak	3
PUNTUAK GUZTIRA	100

Diru-laguntza jasoko badute, gehieneko puntuazioaren 30 puntu lortu beharko dute aurkezten diren proiektuek gutxienez, aurreko irizpideen arabera. Programa honetarako diru-laguntzaren zenbatekoa zatituko da elkarteei esleitutako puntu guztiekin (hemen zehazten diren balorazio adierazleen arabera), eta horrela puntu bakoitzaren balio ekonomikoa kalkulatu da. Balio ekonomikoa hori bider elkarteak lortzen dituen puntuak egin, eta horrek adieraziko du diru-laguntza bakoitzaren zenbatekoa.

11. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Deialdi honetako dirulaguntzen onuradunek, Oiartzungo Udal Ordenantzak ezartzen dituen betebeharrak bete beharko dituzte. Besteak beste, eta beste ataletan aipatutakoaz gain ondorengo hauek:

- 1) Diru-laguntzen emakida sortu duen helburua bete, proiektua gauzatu, jarduera egin edo portaera izan.
- 2) Oiartzungo udalari justifikatzea bete direla diru-laguntza emateko edo baliatzeko behar diren betekizunak eta baldintzak, bai eta jarduera egin dela eta helburua bete dela ere.
- 3) Organo emaileak egin beharreko egiaztapen-jardunen mende jarri eta lagundu, indarrean den araudiaren baldintzetan, eta baita kontrol-organoek egin ditzaketen finantzako beste egiaztapen-eta kontrol-jardunen mende ere, aurreko jardunetan eskatzen zaion informazio guztia ekarrita.
- 4) Diru-laguntzaren emakidarako kontuan izan den edozein gertaera objektibo zein subjektiboren aldaketa jakinarazi.
- 5) Organo emaileari, hala badagokio, edozein Administrazio edo erakunde publiko zein pribatutatik, nazional zein nazioartekotatik diruz lagundutako jarduera finantzatzen duten beste diru-laguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak lortu izana jakinarazi.
- 6) Hala badagokio, diru-laguntza itzultzea, oinarri-arau hauetan xedatutakoaren arabera.
- 7) Diruz lagundutako jarduera betetzeko baimen guztiak eskuratzea, eta horietan ezarritakoa betetzea.
- 8) Pertsonen oinarriko eskubideak errespetatzea, jarduerak dirauen bitartean.
- 9) Diruz lagundutako jarduerak edozein delarik ere, antolatzaileak betebeharrak izango ditu:

- a) Erakunde onuradunak diruz lagundutako jardueran argitaratzen diren idatzi, iragarki, ohar eta gainerako komunikazioak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan idatzi eta ezagutarazi beharko ditu, eta publizitatearekin ere, ahozko zein idatzia izan, berdin jokatu du. Halaber, ekitaldi zehatzetan megafoniaz igorritako mezuak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan transmititu beharko dira. Betebehar hori bete izana diruz lagundutako jarduera egin dela justifikatzerakoan egiaztatu beharko da.
- b) Diruz lagundutako edozein jardueraren antolatzaileak idatziz, ahoz edo irudi bidez eginiko iragarki guztietan Oiertzungo Udalaren laguntzaren berri eman beharko du, haren logotipoa txertatuz (ad.: weba, kartelak...).

12. JUSTIFIKATZEKO EPEA eta MODUA.

Diru-laguntza justifikatzeko, elkarte edo pertsona onuradunak Oiertzungo udaletxean eskatutako dokumentazioa aurkeztu beharko du 2022ko urtarrilak 31 aurretik, ondoren zehazten diren agiriak aurkeztu beharko ditu

- a) Jardueraren justifikazio memoria. Bertan jardueraren zehaztasunak azaldu beharko dira:
 - Noiz eta non egin den.
 - Parte hartzea nolakoa izan den.
 - Ondorioak, eginiko ebaluazioa.
 - Dokumentazio grafikoa edo/eta ikus-entzunezkoa balego (kartelak, argazkiak...)
- b) Memoria ekonomikoa
 - Izandako diru -sarreraren eta gastuen balantze orokorra.
 - Ekintzen gastuak osotara justifikatzen dituzten jatorrizko fakturak.
 - Faktura guztien zerrenda aurkeztuko da.
 - Helburu berberarekin elkarteak beste erakunde batzuei eskaturiko dirulaguntzen zerrenda (eskatutakoa, ebazteko daudenak eta ebatziak).

Diru-laguntzen guztizko kopuruak, bakarrik edota beste diru-sarrerekin batera, ez du onuradunak garatu beharreko jardueraren kostea gaindituko. Horrela gertatuko balitz, jasotako gehiegizko diru kopurua itzuli beharko luke entitateak gehienez ere 60 eguneko epean.

13. DIRU-LAGUNTZAREN ORDAINKETA

Oinarri orokorretan xedatutako epeetan eta eran ordainduko da diru-laguntza. Diru-laguntza ematea onartu ondoren, ordainketa era honetan gauzatuko da: Oiertzungo udaletxean eskatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren ordainduko da dirulaguntzaren % 100.

14. XEDAPEN GEHIGARRIA

Oinarri-arau espezifiko hauetan berariaz jasotzen ez diren gai guztietan, deialdiaren oinarri-arau orokorretan xedatutakoari eta gainontzeko lege xedapenei jarraituko zaie jarraituko zaio.